

Aurreneko txotxa, Gure Zirkukoek

Gipuzkoako txotx denboraldia hilaren 15ean irekiko dute, Astigarragako Alorrean. Eta protagonista Gure Zirkuko kideak izango dira.



Karpa azpitik upel ondora jauzi egingo dute Gure Zirkuko kideek hilaren 15ean. (Jaizki FONTANEDA | FOKU)

Gure Zirkuko partaideek karpatik sagardotegira jauzi egingo dute datorren urtarilaren 15ean; izan ere, beraiek arduratuko dira 2025eko Gipuzkoako txox denboraldia irekitzeaz. Alorrenea sagardotegian izango da estreinako hitzordu sonatua, Astigarragan. Jada ohitura bihurtu den ekitaldia egingo dute aurrena, sagarrondo berri bat landatuz, eta, ondoren, denboraldi honetako sagardoa dastatu ostean «gure sagardo berria» egingo dute aldarri. 32. edizioa izango du aurtengoa ekitaldi berezi horrek, eta Erribera kulturgunean abiatuko da eguna, prentsaurreko batekin. Astigarragako alkate Xabier Urdangarin eta Lakuako Gobernuko zein Gipuzkoako Foru


Aldundiko ordezkariak hartuko dute parte, eta Euskal Sagardoa jatorri-deiturako arduradunek 2024ko uztaren ezaugarriak azalduko dituzte, sagardo berriaren eta sektorearen berrikuntzen berri ere emanez. Jarraian denboraldiari irekiera emango dioten Gure Zirkuko kideek sagarrondoa landatuko dute Sagardo Etxearen alboan. Sagardoaren Lurraldeko kideek azaldu dutenez, «dinamismoa eta naturaren eraberritzea» sinbolizatu nahi dituzte gonbidatu berezi hauekin.





PUBLIZITATEA





Unibertsitate Graduak

ATE IREKIAK

EMAN IZENA!

PUBLIZITATEA



Klikatuenak



Hontza liburudendak atek itxiko ditu, 40 urteko historiaren ondoren



«Fuera de Catalunya, Navarra es la pionera de las zonas tensionadas» 🔑



«Ausartu gara egiten ez genituen gauzekin, eta oso natural gelditu zaigu»



Propuesta de dirección para una fase que se prevé decisiva en Euskal Herria 



Euskalmet activa esta mañana en Araba el primer aviso amarillo por nieve del año
